



AGINDUA, 2024KO IRAILAREN 23KOA, TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILBURUARENA, TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILAREN 2024-2027 DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEN DUEN AGINDUA BIGARREN ALDIZ ALDATZEN DUENA.

I.- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren 2024ko martxoaren 8ko Aginduaren bidez, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren 2024-2027rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen.

Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6. artikulua eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikulua xedatzen dutenez, administrazio publikoetako organoek edo dirulaguntzak ezartzea proposatzen duen edozein erakundek, aldez aurretik, dirulaguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dituzte horiek aplikatzearen bidez lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, horiek lortzeko behar den epea, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa-iturriak, betiere aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzearen mende.

Eskakizun hori betetze aldera, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak plan batean zehaztu ditu 2024tik 2027ra bitartean gauzatu nahi dituen dirulaguntzen programa eta jarduera guztiak, XIII. legegintzaldiko Euskadi 2024-2028 Gobernu Programan definitutako jarduera-ildoak eta ekimen estrategikoak ezartzen eta garatzen jarraitzeko.

II.- Merkataritza 2030 Merkataritza Estrategiak bost eraldaketa-bektore ezartzen ditu merkataritza-sektorea bultzatzeko: xede-bektoreak, hala nola merkataritza-enpresa eta hiri-espazioa; laguntza- eta azelerazio-bektoreak, giza kapitala, ezagutzaren eta komunikazioaren kudeaketa eta integrazio- eta antolamendu-bektoreak, hala nola gobernantza eta baliabide publikoak.

XIII. Legegintzaldiko «Ongizatean hazi» 2024-2028 Gobernu Programak, programa egituratzen duten bost ardatzen artean, «Hazkunderako eta ongizaterako eredu» deritzona ezartzen du II. ardatz gisa. Eredu horren inguruan artikulatzen dira jardun-eremuak, lankidetzaren publiko-pribatuko esparru batean, Euskadiren berrindustrializazioari laguntzeko baldintzak ahalbidetzeko, ekonomia berriak industria-sare moderno, dinamiko, garatu eta jasangarria bultzatzeko eskaintzen dizkigun aukerak aprobetxatuz, besteak beste. Kalitatezko enpleguaren bidez aberastasuna sortu eta banatzea, zerbitzu publiko sendoei eustea eta inor atzean geratuko ez dela bermatuko duten gizarte-politikak garatzea ahalbidetuko duten baldintzak.

Ardatz honen bederatzigarren jardura-eremuetako bat merkataritzari eta ostalaritzari buruzkoa da, eta merkataritzaren lehiakortasuna hobetzeko jarduketa-konpromisoa nabarmentzen da. Programan jasotzen den bezala, merkataritza-jardura aberastasuna garatzeko eta banatzeko motorra da, eta funtsezko eginkizuna betetzen du Euskadiren garapen ekonomikoan eta sozialean. Hurbileko sektore hori egituratzeko gaitasunak tokiko hazkunde ekonomikoari eta enplegu-sorrerari laguntzen dio. Funtsuzkoa da, halaber, jasangarritasuna, ekonomia zirkularra eta hurbileko produktuak bultzatzeko. Etengabeko bilakaera teknologiko eta digitalak tokiko merkataritzaren bertuteei balioa ematea eskatzen du, hala nola hurbiltasunari eta arreta pertsonalizatuari. Eraldaketa sozialak, ekonomikoak eta ingurumenekoak eta, batez ere, gertatzen ari diren abiadurak lankidetzaren publiko-





pribatua eskatzen dute, tokiko merkataritzaren eraldaketa kontsumitzaile digitalaren eta presentzialaren eskariekin bateragarri egiteko, etorkizunera begira.

Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak Merkataritzako Bulego Teknikoen (OTC) euskarrirako laguntzak ezartzen ditu, aurrekontu-ahalegina EAEko Merkataritzako Bulego Tekniko guztien funtzionamenduan kontzentratuz. Laguntzak lehiaketa-prozeduraren bidez emango dira, agindu honetan ezarritako baremazio-irizpideak erabiliz.

Lurralde osoan zehar banatzen diren eta sarean lan egiten duten MBTak Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-enpresei laguntzeko aktibo nagusietako bat dira, eta balio handiko lanbide-taldea osatzen dute politika publikoak koordinatzeko eta dinamizatzeko, lankidetzak publiko-pribatu estua erraztuz. Sektorearekin lotutako jarduerak behar bezala gauzatzeko aholkularitza eta trebetasuna eskaintzen dituzte. Hori guztia, gainera, hiri-merkataritzaren arazoa gertutik ondo ezagututa egiten dute.

III.- Plan honetan sartutako jarduketan xehetasunak honako hauetan aurreikusitako printzipioei jarraikiz egin dira: Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6. artikulua; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.3 artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 21/2023 Legea; eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 01/15 Zirkularrak, Dirulaguntzen Plan Estrategikoak lantzekoak, gaineratzen dituen jarraibideak.

Horregatik guztiagatik, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.4 artikulua ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA. - Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzen duen Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2024ko martxoaren 8ko Agindua aldatzea, eta ardatz estrategikoetan ekintza hauek sartzeari, I. eta II. eranskinetan zehaztutakoaren arabera.

BIGARRENA. – Kontrol Ekonomikoko Bulegoari agindu honen berri emateko eta horren berri emateko agintzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan, sailaren webgunean eta gardentasun-atarian argitaratuz.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko irailaren 23a

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua,
JAVIER HURTADO DOMÍNGUEZ



I. ERANSKINA

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

2.- ARDATZ ESTRATEGIKOA: MERKATARITZA-SEKTOREAREN LEHIAKORTASUNA SUSTATZEA

Organo kudeatzailea: Merkataritza Zuzendaritza

46. konpromisoa. Merkataritzaren eta ostalaritzaren lehiakortasuna hobetzea.

Fitxa	Diru-laguntza lerroa	Zenbateko a 2024	Zenbateko a 2025
1.8.46.7	OTC Merkataritzako Bulego Teknikoetarako dirulaguntza	1.600.000 €	400.000 €



II. ERANSKINA

1.8.46.7 fitxa:

Helburu estrategikoa (46. konpromisoa): Merkataritzaren eta ostalaritzaren lehiakortasuna hobetzea.
Organoa: Merkataritza Zuzendaritza
Programa: Barne-merkataritza (7612)
Diru-laguntza ildoak: Merkataritzako Bulego Teknikoentzako laguntza-programa

Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
	2024	2025
Helburua: Politikak sektorerara eta lurraldera eramateko tresnak: merkataritza-banaketaren sektoreari eta haren elkarteei laguntza ematea.		
Ekintza: merkataritzari laguntza teknikoa ematea.	50	
Adierazlea: Diruz lagundutako bulegoen kopurua..		

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko	2024	2025
4. kapitulua	1.600.000 €	400.000 €

Sektore hartzaileak eta dirulaguntzak emateko prozedura	
Sektore hartzaileak:	Merkatarien elkarteak edo haien taldeak, federazioak edo taldeak, gehienak merkatarien elkarteak badira, hiru lurralde historikoetako merkataritza-ganberak, eta udalek edo horiek sustatutako garapen-erakundeak.
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Deialdia.